

2014

gida

**Prestazioak,
subsudioak
eta oinarrizko
errentak**





AURKIBIDEA

1. Prekarietatea eta pobrezia-aren aurka, denok batera enplegu eta aberastasunaren banaketaren alde.....	3
2. Prestazioak, subsidioak eta oinarrizko errentak hego euskal herrian.....	9
2.1 Kotizaziopeko prestazioak.....	9
2.2 Langabeziagatiko subsidioa.....	11
2.3 Laneratzeko errenta aktiboa.....	14
2.4 Oinarrizko errentak hego euskal herrian.....	14

1. PREKARIETATEA ETA POBREZIAREN AURKA, DENOK BATERA ENPLEGU ETA ABERASTASUNAREN BANAKETAREN ALDE

Gida hau egiteko ideia, hein handi batean, enplegua ukatu izanak eragiten duen diru-sarrera eza estaltzera bideratzen diren prestazioak ezagutarazteko premiaren harira sortu da. Azken hilabeteotan nahita sortu den nahasmen, desitxuratzeko, kriminalizatzeko giroak mesfidantza eta ezjakintasuna elikatzen dute bakarrik. Ezjakintasun horrek, biztanleriaren alderdi esanguratsu bat, baldintzak bete arren, haien eskubideak ez erabiltzera eramaten du.

Baina prestazioen berri emateaz gain, gure herriaren alderdi garrantzitsu bat pairatzen ari den txirotasun eta prekariedade egoerari buruzko datuen ekarpena egin dugu ere; era berean, gobernuen, Madrilakoaren zein hemengoenen, jokabide antisoziala salatu dugu ere. Eta horrekin batera, egoera onartezin hau iraultzeko antolaketa eta mobilizazioaren beharra aldarrikatu.

Langileok txirotasunera eta prekariedatera zigortu gaituzte.

- 2008. urteaz geroztik etengabe suntsitzen ari da lanaldi osoko enplegua. Aipatu aldiari lanaldi osoko 214.500 enplegu galdu dira.
- Era berean, lanaldi partzialean dihardutenen eta miseriazko soldatak dituztenen kopurua handitzen ari da. Egun, gure herrian lana egiten dutenen %17ak lanaldi partzialean dihardu, hots, 185.400 pertsona.
- Horrela, pertsonen esplotazioa areagotzen ari da: egungo enpleguek ez gaituzte duintasunez bizitzen uzten, ez eta, lanik ez dugunean, prestazio duinik eskuratzen.

Iraupen luzeko langabeziak gero eta langile gehiago zigortzen ditu.

- Hego Euskal Herrian, 217.000 langabetu ditugu (INE, 2014ko 3. hiruhilekoa).
- Enplegu bila dabiltzan 134.500 langabetuk urte batez baino gehiagok ez du lanik lortzen. Hauen artean, 88.000-k, gutxienez, bi urtez lan bila dabiltza. Talde hori hazten eta hazten ari da. Duela urtebete, langabetu guztien %30a osatzen zuten. Egun, %40,6a dira.

Babestuen gutxiago dira, eta prestazioak are txikiagoak: horretan datza Espainiako Gobernuaren politika.

- Krisialdia hasi zenetik, langabeziaren estaldura-tasa mailarik apalenean dago. Hego Euskal Herrian, langabetuen erdiak baino gehiagok (%50,7ak) dagoeneko ez du inolako langabezia-prestaziorik jasotzen. Langabezian dauden 100.000 langile baino gehiagok ez du inolako babesik jasotzen.
- Langabeziari dagokion ordaindutakoaren arabera prestazioaren batez besteko kopurua maldan behera doa; 2012. urtean 924 euro izatetik, 2014. urtean 864 euro izatera igaro da.
- Prestazioaren bat jasotzen dutenen artean ordaindutakoaren arabera prestazio kopurua urritu da eta laguntzagatikoak handitzen ari dira. Horrek esan nahi du, babesik balego, gero eta ahulagoa eta eznahikoa dela eguneroko oinarrizko premiei aurre egiteko: laguntzagatiko prestazioen zenbatekoa (txertaketako errenta aktiboa, sorospena,...) 426 euro hilekoa da.

ESPAINIAKO GOBERNUAK PRESTAZIOAK ETA LANGABEZIA SARIA MURRIZTU DITU BAKARRIK

- **Langabezia saria:** 6. hilabetetik aurrera kobratu behar den kopurua %10ean urritu du.
- **Txertaketako Errenta Aktiboa:** laguntza hau eskuratzeko baldintzak aldatu ditu. Orain, derrigorrezkoa da lehenago lan egin izana eta langabezia-prestazioa edo subsidioa kobratu izana. Horrez gain, ez daiteke Estatutik kanpora joan prestazioa eskatu aurreko 12 hileko aldian, irteerak etengo duelako enplegu eskatzaile gisa egiten den inskripzioa (etenik gabeko 12 hilabetetan edo gehiagotan izena emana egotea eskatzen delako).
- **Familia ardurarik ez duten 45 urte baino gehiago dituztenen subsidioa.** Eskatzaile berriei kendu diete aipatu subsidioa.
- **55 urte baino zaharragoak direnentzako subsidioa.** Lehen, subsidio hau onartzen zitzaizen 52 urte baino gehiago zituztenei. Gaur egun, 55 urte bete behar dira, eta familiaren diru-sarrerei baldintzatua dago.

ENPLEGUA ETA BABESA UKATZEN DIZKIGUTE

Enplegu zerbitzuak ez datoz bat langabetuen premiekin

- Enpresa pribatuak kontratatuz, behar besteko berezko baliabiderik ez zegoela-

ko, diru publikoa xahutzen dute. Lanbidek entitate laguntzaileen sare gisa dihardu, ikastaroak eskaintzeko nahiz ekimenak eta orientabide-zerbitzuak burutzeko, eta 2014. urtean, haren kostua 31.000.000 euro baino handiagoa izan zen. Beste hainbeste gertatzen da Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin.

- Enplegu zerbitzuak kudeatzeko, kontrolatzeko eta prestazioen ordainketa egiteko, bulego hutsetan bihurtu dituzte.
- Enplegu zerbitzuaren zeregin nagusiak ez dira garatu: prestakuntza, orientazioa eta bitartekotza.
- Enplegu zerbitzuetako langileei ukatzen ari zaizkie langabetuen baldintza egoiei aurre egiteko baliabideak: ez dago behar beste lankiderik, kontrolak areagotzeko buruen presioa, lan ezegonkortasuna,...
- Lanbideri dagokionez, langile kopurua eznahikoa da kalitateko zerbitzua eskaintzeko: horietako asko eta asko kontratu kaskarrak dituzte eta laster haien lanpostua gal dezakete. Aretoen banaketa eta diseinua ezegokia da pertsonen eskariei erantzuteko. Kudeaketa kaotiko horrek bereziki kalte egiten die Diru-sarrerak Bermatzeko Errenten hartzaileei.

Euskal Herriko pobrezia-tasak maila onartezin batean dirau.

• Europako Batasunak proposatu du batez besteko errentaren %60aren baliokidea den gutxiengo errenta bermatu behar dela. Horren azpitik, jendea pobrezia-arriskuan dagoela irizten da. Hego Euskal Herrian ez da betetzen pobrezia neurtzeko irizpide hori, ez eta bermatu ere, enplegu duina eta kalitateko zerbitzu publikoetara heltzeko irizpidea (pobrezia eta gizarte bazterketaren aurkako Europako Estrategia 2020).

	Europako Batasunak aholkatu duen urteko gutxiengo errenta (batez besteko errentaren %60a)	Gasteiz eta Iruñeko gobernuek ezarri duten urteko gutxiengo errenta.
Nafarroa	11.500	6.542
EAE	12.035	7.392

• Europako irizpideekin bat etorritik, Hego Euskal Herrian, biztanleriaren %19,35ak (553.996 lagun) ez du behar beste baliabide ekonomikorik bizitza duina egiteko. Egoera horretan daude 120.386 lagun Nafarroan (Nafarroako Estatistika Institutua) eta 433.610 lagun EAEn (Eustat).

Babes sistemak zailtasun handiz ekingo die benetako premiei.

- Gaur egungo babes sistema eznahikoa da, kopuruei dagokienez (Europak eza-rritako pobrezia atalasearen azpitik daudenak) eta milaka lagun estaldura sozialik gabe uzten ditu.
- Diru-sarrerak Bermatzeko Errentak (EAE) eta Gizarte-Inklusio Errenta (Nafarroa) 75.000 etxetara bakarrik iristen dira (titular eta menpeko kideen artean 175.000 lagun, kontuan hartuz, hauekako bakoitzean, batez beste, 2,3 pertsona bizi direla).
- Eusko Jaurlaritzak 2012. urtean egin zuen pobrezia- eta gizarte-aldeei buruzko inkestak onartzen zuen egungo diru-sarrerak bermatzeko sistema arriskuan dagoen biztanleriaren %72,6ri iristen zaiela. Horrek esan nahi du, EAEn bakarrik, 21.666 etxetan (49.831 pertsona) ez dagoela inolako diru-sarrerarik.
- Baina Europak agertzen duen irizpidea erabiliko bagenu, Euskal Herrian bete-tzen ez dena, egoera are okerragoa litzateke: pobrezia-aren atalasea azpitik daude-nen hiru pertsonetatik bakarrik soilik, laguntza publikoren bat dauka. Horri onar-tezina deritzagu.

GASTEIZEKO ETA IRUÑEKO GOBERNUK DIRU-SARRERAK BERMATZEKO PROGRAMAK MURRIZTU ETA MURRIZTU DITUZTE.

- **Diru-laguntzen kopuruak murriztu eta bere horretan utzi dituzte.** EAEn %7an murriztu ziren, eta Nafarroan %15ean.
- **Beharrezkoak gertatzen diren erroldatzeko aldiak aldatu dituzte.** EAEn urte bat eskatzetik, hiru eskatzera igaro ziren, eta Nafarroan, urte batetik, bira.
- Etengabe aldatzen da araudiaren interpretazioa, non irizpide murriztaile berriak hartzen diren.
- Oinarritzko errenta kobratzera mugatzen da, 30 hilabetera Nafarroan.

Ez da murrizteko garaia. Premiazkoa deritzegu babes sistema areagotzeari eta hobetzeari.

Duintasunez bizi ahal izatea ukatzen diguten politikai aurre eginez erantzun behar dugu. Klase eta herri gisa egiten dugun eskakizun batez ari gara. Euskal Herrian, mobilizazioa eta borroka:

- **Enpleguaren alde:**

- Lanbide arteko Gutxieneko Soldata eta soldata handitu behar dira.
- Enpleguaren banaketa: 35 ordutako lanastea, aparteko orduak ezabatu behar dira.
- Kalitateko enplegua: ezarritako lanaldi mugatuari ez.
- Enplegua sortu: zerbitzu publikoetan (hezkuntza, osasungintza, menpekotasunaren zaintza,..), industrian, enplegu berdean (etxebizitzaren birgaitzea, energia-eraginkortasuna, lehen sektorea, energia berriztagarriak, mugikortasuna,...).

- **Babesaren alde:**

- Diru-sarreraren Bermea guztiontzat: Diru-sarrera Bermatzeko Legea eta Gizarte-Inklusio Errenta aldatu behar dira, babesa irits dadin behar duen ororengana.
- Diru-sarrera Bermatzeko eta Gizarte-Inklusio Errenten kopurua handitu. Pobrezia-atalase azpitik ez da errentarik egon behar.
- Iruzurra eginez, ustelkeriaz, zerga-ihesez,... ostu den dirua berreskura eta itzul dadin eskatzen dugu, eta gizarte-inbertsiora eta enplegua sortzera bidera dadila.
- Enplegu zerbitzu publikoa eskatzen dugu, zeinak giza-baliabide eta baliabide tekniko gehiagoz hornituta, pertsonak duintasunez har ditzan, haien heziketa, orientazioa eta laneko bitartekotza susta ditzan.
- Enpleguko politika aktiboen eta pasiboen lan-erregulazioa egiteko gaitasun osoa edukitzea eskatzen dugu.
- Lan harremanetako eta babes sozialeko berezko sistema izan behar dugu Euskal Herrian. Bertan bizi bagara eta kotizatzen badugu, bertan erabaki behar ditugu enplegua, prestazioak, pentsioak,...

LABek kontuak erabat aldatu nahian, Gasteizeko eta Iruñeko gobernuak ezartzen ari diren giza-baliabide ezak, baliabide tekniko eta ekonomiko ezak are gehiago kaltetu ditzan enplegu zerbitzuetako erabiltzaileei eragotzi nahian buru belarri dirau.

Beharrezkoa deritzagu gure ekintza sindikala auzo eta herrietan, Euskal Herran bizi garen pertsona guztientzako Eskubide Sozialen Gutunari lagundu behar zaiola eskatuz egin den lanarekin lotzeari.

Gida hau irakurriko duzuenak animatzen zaituztegu antola eta mobiliza zaitetzten Gutunaren eta kalitateko enplegua izateko eskubidearen alde, enplegu banaketaren

alde, nahiz berdintasunez eta duintasunez bizitzen lagako dizkiguten baliabide ekonomiko eta sozialak (zerbitzu publikoak, etxebizitza,..) izaten utziko digun eskubidearen alde.

Lan eginez, konpromisoz jardunez, elkartasunez eta elkarri lagunduz lor dezakegu

2. PRESTAZIOAK, SUBSIDIOAK ETA OINARRIZKO ERRENTAK HEGO EUSKAL HERRIAN

2.1 KONTRIBUZIO-MAILA: KOTIZAZIOPEKO PRESTAZIOA

Prestazioaren Iraupena

- Azken 6 urteetan egindako kotizazioen arabera kalkulatzen da, aurreko prestazio baterako ez badira kontuan hartu, eskala honen arabera:

Kotizatutako egunak	Prestazio-egunak
360 - 539	120
540 - 719	180
720 - 899	240
900 - 1.079	300
1.080 - 1.259	360
1.260 - 1.439	420
1.440 - 1.619	480
1.620 - 1.799	540
1.800 - 1.979	600
1.980 - 2.159	660
2.160tik aurrera	720

- Lanaldi partzialan lan egin baduzu, egun bakoitza, kotizatutako egun bat modura hartuko da, edozein dela lanaldia.

Prestazioaren Zenbatekoa

- Langileak duen oinarri arautzailearen araberkoa izango da.
- Eguneko oinarri arautzailea, langabeziagatik kontingentziagatik Gizarte Segurantzari azken 180 egunetan kotizatutako (lanaldi osoa edo partziala) oinarrien batura zati 180 eginez lortzen da.
- Prestazioaren lehenengo 180 egunetan oinarri arautzailearen %70 kobratzen da eta 181. egunetik aurrera %50.
- 2014. urterako prestazioaren gutxieneko eta gehieneko zenbatekoa, ardurapeko seme-alaben arabera:

Hileko gutxienerako zenbatekoa		Hileko gehieneko zenbatekoa	
Seme-alabarik gabe	497,00 €	Seme-alabarik gabe	1.087,20 €
		Ume batekin	1.242,52 €
Seme-alabekin	664,74 €	2 ume edo gehiago	1.397,83 €

- Ardurapeko seme-alabatzat hartuko dira 26 urtetik beherako adingabeak edo ezgaituak diren 26 urtetik gorakoak edo hartutako adingabeak, zurekin bizi badira eta hilean 645,30 € baino handiagoko errentarik ez badute.
- Prestazioaren zenbateko gordinari 2 kenketa aplikatzen zaizkio: Gizarte Segurantzaren kotizazioa eta PFEZren konturako atxikipena, dagokionean.

Prestazioa Lortzeko Baldintzak

- Langabezia egoeran egotea.
- Gizarte Segurantzaren alta egoeran afiliatuta egotea.
- Enplegua modu aktiboan bilatu eta enplegu egoki bat onartzeko borondatea erakustea, iharduera konpromezua sinatuz.
- Kaleratu aurreko 6 urtetan edo langabeziagatik azken prestazioa aitortu zitzaionetik gutxienez 360 egun kotizatu izana.
- Kasu bakoitzean erretiro-pentsioa kobratzeko beharrezkoa den adina bete ez izana.

Eskaera Epea

- Eskaera egiteko momentuan edo lehenago enplegu-eskatzaille moduan izena eman behar da.
- Prestazioa eskatzeko epea 15 egun baliouduneko (ez dira kontuan hartzen igande eta jaiegunak) izango da, lanpostua uzten denetik edo lan harremana eteten denetik hasita.
- Eskaera finkatutako epean ez egiteak, eskubidea sortzen zen eguna eta eskaera egin den eguna bitartean jaso beharreko prestazioa galtzea suposatzen du.

Non Aurkeztu Behar Da Eskaera

- SEPEren bulegoetan. Nafarroako Enplegu zerbitzuen eta Lanbideren enplegu bulegoen eraikin berean kokaturik daude SEPEren bulegoak.
- Informazio gehiago <https://sede.sepe.gob.es> web orrian

2.2 LANGABEZIAGATIKO SOROSPENA EDO SUBSIDIOA

3 kasutan kobra daiteke: Kotizaziopeko prestazioa agortzeagatik, lana galtzeagatik edo 55 urtetik gora izateagatik.

Prestazioa Lortzeko Baldintza Orokorrak

- Langabezia egoeran egotea.
- Prestazioaren amaieratik hilabetez enplegu eskatzaile moduan izena emanda egotea, egokia den lan eskaintzarik baztertu gabe eta eskainitako formakuntzan parte hartuz. Langabeziagatiko sorospenak irauten duen bitartean izena emanda egon behar da.
- Iharduera konpromezua sinatzea.
- Eskatzaileak Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren %75eko errentak baino txikiagoak izatea, aparteko 2 ordainsarien zati proportzionala kontuan hartu gabe. Errentarik ez izatearen baldintza bete dela ulertuko da soilik familiako kide guztien (eskatzailea, ezkonkidea, 26 urte baino gutxiagoko seme-alabak, adineko ezgaituak eta hartutako adingabeak) diru-sarrerak batu eta kide kopuruaz zatituz LGS %75 ez bada gainditzen.

a) Kotizaziopeko Prestazioa Agortzeagatik

Prestazioa Lortzeko Baldintzak

- Kotizaziopeko prestazioren bat agortuta izatea.
- Hilabete bat eramatea enplegu eskatzaile moduan izena emanda, prestazio hori amaitzen denetik.
- Familia erantzunkizunak izatea (45 urte edo gehiago izanez gero ez da beharrezkoa).
- Nekazaritzako aldi baterako langileentzako kontribuzio-laguntza agortu duten langileek ez dute langabeziagatiko sorospena jasotzeko eskubiderik.

Eskaera Epea

- Kotizaziopeko prestazioa agortzen denetik hilabete pasa eta hurrengo 15 egun baldiodunak.

Prestazioaren Iraupena

- 6 hilabete, 6 hilabeteko aldietan luza daitekeena, agortutako kotizaziopeko langabezia prestazioaren iraupenaren eta eskatzailearen adinaren arabera.

Adina	Kontribuzio mailako prestazioa agortuta	Laguntzaren iraupena	
		Familia erantzunkizunik gabe	Familia erantzunkizunak izanda
45 urtetik beherakoak	4 hilabete	-----	18 hilabete
	6 hilabete edo gehiago		24 hilabete
45 urtetik gorakoak	4 hilabete	6 hilabete	24 hilabete
	6 hilabete edo gehiago		30 hilabete

b) Lana Galtzeagatik

Prestazioa Lortzeko Baldintzak

- Borondatearen aurka enplegua galtzea.
- Langabeziagatik 90 eta 179 egun artean kotizatu izana, familia-erantzunkizunak daudenean.
- Langabeziagatik 180 eta 359 egun artean kotizatu izana, familia-erantzunkizunik ez dagoenean.

Eskaera Epea

- Lana egindako azken egunetik hurrengo 15 egun baliodunak.

Prestazioaren Iraupena

- Kotizatu den denboraren eta familia-erantzunkizunen araberakoa da.

Kotizatutako egunak	Laguntzaren iraupena
Familia erantzunkizunak izanda:	3 hilabete
90 eta 119 egun artean	4 hilabete
120 eta 149 egun artean	5 hilabete
150 eta 179 egun artean	21 hilabete
180 egun edo gehiago	
Familia erantzunkizunik gabe:	6 hilabete
180 egun edo gehiago	

d) 55 Urtetik Gora Izateagatik

Prestazioa Lortzeko Baldintzak

- Langabezia prestazioa edo laguntza agortzen den egunean 55 urte edo gehiago beteta izatea, adin hori beteta izatea beste laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen diren unean edo laguntza horiek jasotzen diren bitartean 55 urte betetzea.
- Gizarte Segurantzaren sisteman erretiroagatik pentsioa kobratzeko baldintza guztiak betzea, adina salbu.
- Lan bizitzan zehar gutxienez 6 urtez langabeziagatik kotizatu izana.
- Aldizkako langile finkoa ez izatea eta aldi baterako nekazaritzako langileen kotizaziopeko prestazio bat agortuta ez izatea.

Eskaera Epea

- Edozein motatako laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen badira edo laguntzaren bat jasotzen bada, 55 urte betetzen diren unean hasten da eskaera epea.

Prestazioaren Iraupena

- Erretiroaren kontribuzio-mailako pentsioa jasotzeko adina bete arte.
- Laguntza jasotzen jarraitzeko, eskatzailearen, eta hala badagokio, familia-unitatearen diru-sarreraren aitorpena aurkeztu behar da.

Prestazioaren Zenbatekoa

- Hilean 426 € (kopuru hau urtero eguneratzen da).

Non Aurkeztu Behar Da Eskaera

- SEPEren bulegoetan. Nafarroako Enplegu zerbitzuen eta Lanbideren enplegu bulegoen eraikin berean kokaturik daude SEPEren bulegoak.
- Informazio gehiago <https://sede.sepe.gob.es> web orrian.

2.3 LANERATZEKO ERRENTA AKTIBOA

Laneratzeko Errenta Aktiboa Kobra Dezaketen Kolektiboak

- 45 urte baino gehiagoko epe luzeko langabeak.
- 45 urte baino gehiagoko itzultitako emigranteak.
- Genero indarkeriaren edo etxeko indarkeriaren biktimak.
- Ezgaituak.

Prestazioa Lortzeko Baldintza Orokorrak

- Langabezian egotea, enplegu eskatzaile moduan izena emanda eta iharduera konpromezua sinatuta.
- 65 urte baino gutxiago izatea.
- Hilabeteko diru-sarrerak 483,98 € baino txikiagoak izatea.
- Familia unitateko kide guztien (eskatzailea, ezkonkidea, 26 urte baino gutxiagoko seme-alabak, adineko ezgaituak eta hartutako adingabeak) hilabeteko diru-sarrerak batu eta kide kopuruaz zatituz 483,98 € ez badira gainditzen.
- Eskaera egin aurreko 365 egun naturaletan Laneratzeko Errenta Aktiboko Programaren onuraduna izan ez izana, genero indarkeriaren edo etxeko indarkeriaren biktimen eta ezgaituen kasuan salbu.
- Aurrez 3 Laneratzeko Errenta Aktiboko Programen onuraduna izan ez izana.

Prestazioa Lortzeko Baldintza Zehatzak

a) Epe Luzeko Langabeak

- 45 urte edo gehiago izatea.
- Prestazio kontributibo bat edo langabeziagatiko sorospena amaitu izana, zigor kasuetan salbu.
- Langabeziagatiko prestazioa, langabeziagatiko sorospena edo nekazaritza errenta kobratzeko eskubiderik ez izatea.
- Enplegu bulegoan enplegu eskatzaile moduan 12 hilabete edo gehiagoz (etenik gabe) izena emanda egotea.

b) Ezgaituak

- %33koa edo altuagoa den ezgaitasuna onartua izatea edo ezgaitasunagatik pentsioduna izatea.
- Prestazio kontributibo bat edo langabeziagatiko sorospena amaitu izana, zigor kasuetan salbu.

Langabeziagatiko prestazioa, langabeziagatiko sorospena edo nekazaritza errenta kobratzeko eskubiderik ez izatea.

- Enplegu bulegoan enplegu eskatzaile moduan 12 hilabete edo gehiagoz (etenik gabe) izena emanda egotea.

d) Itzulitako Emigranteak

- 45 urte edo gehiago izatea.

- Gutxienez 6 hilabetez atzerrian lan egin izana Espainiatik irtendako azken aldian eta eskakizuna aurkeztu aurreko 12 hilabetetan itzuli izana.

e) Genero Indarkeriaren Edo Etxeko Indarkeriaren Biktimak

- Genero indarkeriaren edo etxeko indarkeriaren biktima izaera egiaztatzea Administrazioako Gizarte Zerbitzuen edo harrera zentroaren ziurtagiriaren bidez, epailearen ebazpenaren bidez, babes aginduaren bidez edo Ministerio Fiskalaren txostenaren bidez.

Prestazioaren Iraupena

- Gehienez 11 hilabetez kobra daiteke, eskaera egin eta hurrengo egunean kobratzen hasiz.

Prestazioaren Zenbatekoa

- Hilean 426 € (kopuru hau urtero eguneratzen da).

Non Aurkeztu Behar Da Eskaera

- SEPEren bulegoetan. Nafarroako Enplegu zerbitzuen eta Lanbideren enplegu bulegoen eraikin berean kokaturik daude SEPEren bulegoak.
- Informazio gehiago <https://sede.sepe.gob.es> web orrian.

2.4 OINARRIZKO ERRENTAK HEGO EUSKAL HERRIAN

Hego Euskal Herrian 2 Oinarrizko Errenta mota daude: Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan eta Gizarte Inklusiorako Errenta (GIE) Nafarroan.

a) DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA ARABAN, BIZKAIAN ETA GIPUZKOAN

- Behar adinako diru-sarrerak ez dituzten pertsona eta familien oinarrizko beharrei aurre egiteko hileroko prestazio ekonomikoa da, lan irteera bat topatzen laguntzen diena.
- Diru-sarrerak ez dituzten pertsonak edo dituzten diru-sarrerak oinarrizko beharrei aurre egiteko nahikoak ez direnek eta baldintza batzuk betetzen dituztenek kobra

dezakete laguntza hau.

- Izan daitezke lanik ez duten pertsonak, diru-sarrera txikiak dituzten langileak, pensionistak, beste mota bateko pentsioa jasotzen dutenak, bizileku-baimenik ez duten inmigranteak, ...

DBE Lortzeko Baldintzak

- Salbuespenak salbuespen, urtebete lehenagotik bizikidetza-unitatea osatzea.
- Benetako bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan eduki eta bertan erroldatuta egon izana azken 3 urtetan etenik gabe. Pentsio publikoa kobratzen dutenek eta etxeko indarkeria jasan dutenek nahikoa dute urtebeterekin. Gipuzkoan baldintza hau betetzen ez dutenek baina 12 hilabetez erroldatuta egon direnek Diru-Sarrerak Bermatzeko Laguntza jasotzen dute.
- Bizirauteko oinarritzko gastuei aurre egiteko behar adinako baliabideak ez izatea.
- 23 urte baino gehiago izatea (salbuespen batzurekin).
- Gizarte arloko, osasun arloko edo arlo sozio-sanitarioko egoitza batean ez egotea modu iraunkorren.
- Espetxeratuta ez egotea.
- Lan kontratu batez justifikatutako diru-sarrerak edukita, lanaldi murrizturik edo antzeko egoerarik ez izatea, salbuespeneko kasuetan izan ezik.
- Dagozkion eskubide edo prestazio ekonomiko guztiak aurrez eskatuak izatea.
- Lanbiden enplegu eta beste zerbitzuen eskatzaile moduan izena emanda egotea eta Inklusio Hitzarmen bat edo aurreakordio bat sinatuta edukitzea.

DBEren Zenbatekoa

- DBE familia bakoitzak jasotzen dituen diru-sarreraren osagarri bat da.
- DBEK bermatzen duen gehienezko hileko zenbatekoa, bizikidetza-unitatea osatzen duten pertsona kopuruaren eta hileko diru-sarreraren arabera ezarriko da.
- Diru-sarrera horiek taulan agertzen diren gehienezko kopuruetatik deskontatuko dira.
- Diru-sarrerarik ez dagoen kasuetan, bizikidetza-unitatea osatzen duten pertsona kopuruaren arabera ezarriko da gehienezko hileko kopurua.
- Diru-sarreraren bat dagoen kasuetan (lana, pentsioa, errentak, alokairuak, kalte-ordainak, ...) bizikidetza unitateak jasoko duen hileko zenbatekoa kalkulatzeko, osatzen duten pertsona kopuruaren arabera gehienezko zenbatekoari, familiak jasotzen dituen diru-sarrera guztiak kendu behar zaizkio.

DBEren hileko gehinezko zenbatekoa

Bizitza-unitateko pertsona kopurua	Orokorrean €/hileko gehienez	Pentsionistak €/hileko gehienez
1	616,13 €	700,15 €
2	791,17 €	875,19 €
3 edo gehiago	875,19 €	945,20 €

Non Aurkeztu Behar Da Eskaera

- Dagokizun Lanbideko bulegoan. Informazio gehiagorako <http://www.lanbide.net> web orria.

b) GIZARTE INKLUSIORAKO ERRENTA NAFARROAN

- Gizarte bazterketa egoeran dauden bizikidetz-unitateen oinarrizko beharrei aurre egitea eta hauek gizarteratzen laguntzea du helburu.

GIE Lortzeko Baldintzak

- 25 eta 65 urte artean izatea.
- Espainiako lurraldean legez bizitzea.
- Laguntzaren eskaera egin aurreko 24 hilabetetan jarraian Nafarroan bizi izana.
- Azken seihilekoan prestazioa lortzeko ezarritakoak baino diru-sarrera txikiagoak eduki izana.
- Dagozkion eskubide edo prestazio ekonomiko guztiak aurrez eskatuak izatea.
- Gizarteratu eta enplegua lortzeko akordioa sinatu izana.

GI Eren Zenbatekoa

- Bizikidetz-unitatearen kide kopuruaren arabera egongo da:

GI Eren hileko gehienezko zenbatekoa

Bizitza-unitateko pertsona kopurua	€/hileko gehienez
1	LGSren %85
2	769,68 €
3	833,82 €
4	897,96 €
5 edo gehiago	962,10 €

- Hileko gutxieneko zenbatekoa ez da 64,14 € baino txikiagoa izango.

GI Eren Iraupena

- Orokorrean 6 hilabeteka ematen da, 30 hilabetez gehienez.

Non Aurkeztu Behar Da Eskaera

- Eskatzailearen bizilekuko oinarrizko gizarte zerbitzuetan. Informazio gehiagorako <http://www.navarra.es> web orria.

EZ AHAZTU, BADAUDE BESTE PRESTAZIO BATZUK ERE

- Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria (EAE), Lanbideko bulegoetan.
- Gizarte Larrialditarako Laguntzak (EAE), zure herri edo auzoko oinarrizko gizarte zerbitzuetan.
- Larrialditarako Ezhoiko Laguntzak (Nafarroa), zure herri edo auzoko oinarrizko gizarte zerbitzuetan.

GURE ESKUBIDEAK DEFENDA DITZAGUN

Gure eskubideak dira.

Batzuk oso interesatuta daude gu kriminalizatzeko orduan. Prestazioei buruz eta prestazio horiek jasotzen ditugun gainean zalantzak sortzen dituzte. Badira ere ezjakintasuna zabaltzen dutenak, prestazioak ezagutu ez ditzagun, informazioa ez emanez,...

Haien helburua da guk atzera egitea.

Aldi berean, askotan guk egindako eskaerei uko egiten diete edo ordainketak itzultzea eskatzen digute. Zer egin, nola egin, nola jarri helegite bat.

Ez izan dudarik jarri harremanetan Sindikatuarekin.

